# ETXEBIZITZA ETA TRASTELEKU BAT SALTZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA

## 1. Kontratuaren xedea

Telesforo Aranzadi 3-2.F etxebizitza eta atxikitako 3. zenbakia duen trastelekua saltzea da kontratu honen xedea. Ondasun horrek ez du kargarik (norbaitek informazio erregistral hori nahiko balu, interesatuen eskura dago Idazkaritzan).

## 2. Kontratazio prozedura

Erabiliko den kontratazio-prozedura prozedura irekia izango da.

## 3. Lizitazio oinarria

Gutxieneko lizitazio-oinarria 143.000 eurokoa izango da.

Lizitazioa goraka egingo da eta ez da aipatutako kopuru hori hobetzen ez duen posturarik onartuko.

Lizitazio-oinarrian ez dago sartuta eskualdaketari legokiokeen inolako zergarik, ezta notaritza- edo erregistro-gasturik ere. Izatekotan, gastu horiek denak adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira.

## 4. Fidantzak

Lizitazio honetan parte hartzeko 1.000 euroko fidantza ezarri beharko dute lizitatzaileek.

Adjudikazio-hartzaile ez direnei, adjudikazioa egiten denetik kontatzen hasita 10 eguneko epean itzuliko zaie ezarri duten fidantza.

Finkaren adjudikazio-hartzaileari, berriz, ezarritako fidantza itzuliko zaio behar bezala inskribatutako eskrituren lehenengo kopia entregatu ondoren, gehienez ere 7 eguneko epean.

Eskritura emandako epean sinatu ez edo Jabetza Erregistroan inskripzioa adjudikazio-hartzaileari egotzi dakiokeen arrazoiren batengatik atzeratuko balitz hilabete bat baino gehiago ezarritako fidantza galduko du.

Fidantza ezartzeko, dirutan nahiz Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan xedatutako edozein bitarteko erabiliz egin ahal izango da.

**5. Adjudikazio-modua**

Adjudikazioa egiteko lizitatzaileak egindako eskaintza ekonomikoa hartuko da kontuan. Honela, preziorik handiena eskaini duenari adjudikatuko zaio.

Suerta daitezkeen berdinketak zozketa bidez erabakiko dira. Zozketa ekitaldi publikoan egingo litzateke Bergarako udaletxean eta interesatuak aurrez deituak izango dira.

**6. Kontratatzeko gaitasuna**

Prozedura honetara edozein pertsona fisiko edo juridiko aurkeztu ahal izango da, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izanik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluak ezarritako kontratatzeko debeku-egoeretan ez badaude.

Halaber, norbere izenean edo ahalmendun norbaitek ordezkatuta aurkeztu ahal izango dira, horretarako ahalmen askietsia aurkeztuta. Pertsona juridiko baten izenean bertako kideren bat aurkezten denean, agiri bidez egiaztatu beharko du horretarako ahalmena.

**7. Proposamenak, dokumentazioa eta aurkezteko epea**

Dokumentazioa kartazal nagusi itxi baten barruan aurkeztuko da eta, kartazalaren kanpoaldean, lizitatzailearen izena eta ondorengo inskripzioa agertuko dira: "Etxebizitza eta trastelekua eskuratzeko proposamena".

Kartazal nagusiaren barruan, berriz, beste bi kartazal joango dira, behar bezala itxita. Kartazalek kanpoan ondorengo inskripzioak izango dituzte:

- 1. kartazala: Kontratatzeko Gaitasuna eta Kaudimena
- 2. kartazala: Dokumentazio ekonomikoa.

Bi kartazal horien barruan, berriz, ondorengo agiriak sartu beharko dira:

**- 1. kartazalean:**

a) Norbere izenean nahiz ahaldun moduan, proposamena aurkezten duen pertsonaren NANa, edo egiaztatutako kopia.

Lizitatzailea pertsona juridikoa baldin bada: eraketa edo aldaketaren eskritura (Merkataritza Erregistroan behar den bezala inskribatua) eta horren kopia kautotua. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, nahikoa izango da lanbide- edo merkataritza-erregistroren batean inskribatuta daudela egiaztatzea, dagokion estatuko legediak betekizun hori eskatzen baldin badu.

b) Lizitatzaileak norbere izenean ez diharduenean edo sozietate bat edo pertsona juridikoa denean, beste pertsona edo entitate hori ordezkatzeko ahalorde notariala. Notario-ahalordea behar bezala inskribatuta egon beharko da Merkataritza

Erregistroan —horrela behar balitz— edo dokumentu publikoan —pertsonak ordezkatzerakoan—.

c) 1.000 euroko fidantza jarri dela egiaztatzen duen agiria.

d) Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Testu Bateratuaren 60. artikuluan izendatutako kontratatzeko debekurik ez duela ziurtatzen duen aitorpen erantzukizunduna.

e) Kontakturako e-maila edota telefonoa

**- 2. kartazalean:**

a**)** PROPOSAMEN EKONOMIKOA ondorengo ereduaren arabera:

*Izen-deiturak:_______________________________________________________*
*Helbidea _________________________________________________________*
*NAN: ________________, telefono zk.a______________, gaitasun juridiko eta jarduteko osoa duela, bere izenean (edo ________________________________ _________________________________________________ enpresaren izenean.*
*Enpresaren helbidea: ______________________________________________*
*telefono zk.a_______________, eta NAN edo IFK: ________________________.*

*Goian azaltzen diren nortasun datuak dituenak, Bergarako Udalak Telesforo Aranzadi 3-2.F etxebizitza eta berari atxikitako 3 zenbakia duen trastelekua salmenta bidez inorenganatzeko deitu duen prozedura irekiaren berri izanik, ondorengo* ***ZINPEKO AITORPENA*** *egiten du:*

a. *Ezagutzen ditudala etxebizitza eta trastelekuaren ezaugarriak —fisikoak zein juridikoak— eta baita kontratu hau arautuko duen Baldintza Administratiboaren Plegua eta gainerako dokumentazioa ere, eta neure gain hartu eta osorik onartzen ditudala.*

b. *Finka erosteko, ondorengo prezioa ordaintzeko konpromisoa hartzen dudala: __________________________ €.*

*Bergara, _____________________________*

*Sinadura*

Proposamena aurkezten denean ulertuko da lizitatzaileak plegu honetan esaten den guztia onartzen duela inolako baldintzarik gabe. Gainera, lizitatzaileak besterenganatzen den etxebizitza eta trastelekuaren ezaugarriak —fisikoak zein juridikoak— eta ondorengo aprobetxamendurako aukerak aurrez eta osotasunean ezagutzen dituela ulertuko da, eta adjudikazio-hartzaileak ezingo du, beraz, besterentzearen edo, saltzaile den aldetik, Bergarako Udalaren erantzukizunaren balioaren aurkako hutsegiterik edo ezkutuko akatsik alegatuko inondik inora.

**8. Proposamenak aurkezteko epea**

Eskaintzak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Proposamenak Bergarako Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira, astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 13:00etara bitartean.

Proposamenak aurkezteko epea igande edo jaiegunean amaituko balitz, epea hurrengo lanegunean, 13:00etan, amaituko da.

Eskaintza hau kontratazio-organoko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da ere, eta honako atari informatikoan edo webgunean eskuratu ahal izango da: www.bergara.net.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 80. artikuluari jarraituz, proposamenak postaz ere aurkeztu ahal izango dira; horrelakoetan, lizitatzaileak Postetxean eskaintza zein egunetan sartu den justifikatu beharko du eta kontratazio-organoari eskaintza bidali dela jakinarazi beharko zaio faxez (943 77 91 63 zenbakira) klausula honetako lehenengo idazatian jasotako epea amaitu baino lehen. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren jasotako proposamenik ez da onartuko. Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo hamar egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, ez da inolaz ere onartuko.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta horiek aurkezterakoan lizitatzaileak plegu honetan xedatutakoa oso-osorik onartzen duela ulertuko da.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du. Norbaitek bat baino gehiago aurkeztuko balu, denak atzera botako dira.

**9.Kontratazio Mahaia**

Kontratazio mahaia honako kide hauek osatuko dute:

LEHENDAKARIA:

Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, edo hark eskuordetutako pertsona.

MAHAIKIDEAK:

Lehenengo alkateordea.

Kontuhartzailea, edo hark eskuordetutako pertsona.

Udal Idazkaria, edo hark eskuordetutako pertsona.

IDAZKARIA:

Udalbatzako Idazkaria, edo hark eskuordetutako pertsona.

Mahai bilera honetara udaleko arduradun teknikari guztiak etorri ahal izango dira, Mahaiak horrela eskatzen badu, aholkularitza-lanak egiteko, eta Mahaiak bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

**10. <u>Agiriak sailkatzea eta proposamenak irekitzea.</u>**

Proposamenak ireki aurretik, Mahaiak “1” kartazalean aurkeztatutako dokumentazioa sailkatuko du eta, horietan akats materialik antzemanez gero, Mahaiak hiru laneguneko epea eman ahal izango du lizitatzaileak akats horiek zuzendu ditzan.

Kontratazio Mahaiak “2” kartazalak irekiko ditu (San Martin Agirre plaza, 1), proposamenak aurkezteko epea bukatu eta handik lau egunetara, eguerdiko 12:30ean.

Ekitaldi horretan, jendaurrean, soil-soilik onartutako proposamenei dagozkien “2” kartazalak irekiko dira.

Hasierako deialdi hau mantentzen dela edo sor daitezkeen nolanahiko aldaketak Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira (www.bergara.net); hala ere, jakinarazteko egokitzat jo daitekeen beste edozein bide erabili ahal izango da.

**11. <u>Adjudikazioa</u>**

Egin eta aurkeztu diren eskaintzak ikusita, Kontratazio Mahaiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 320.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoari bidaliko dizkio aurkeztu diren proposamenak, akta eta adjudikazio-proposamena.

Kontratazio-organoak ahalmena izango du, aukeran, kontratua proposamen onuragarrienari adjudikatzeko edo prozedura ezerezean geratu dela adierazteko, baina kasu guztietan arrazoitu egin beharko du.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari Alkateak errekerimendua egingo dio hamar laneguneko epean honako jardun hauek egin ditzan, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita:

1. Haziendaren eta Gizarte Segurantzaren egiaztagiriak aurkeztea, bere ordainketetan egunean dagoela egiaztatzeko.

2. Udal honekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

Eskaintzarik onuragarriena egin duen lizitatzaileak bete beharreko baldintzak bete ez eta kontratuaren adjudikazioa ez bazaio egin, beste deialdi bat egin baino lehen Administrazioak errekerimendu bat bidali ahal izango dio ondorengo lizitatzaileari —eskaintzak sailkaturik geratu diren hurrenkerari jarraituz beti—, eta 5 laneguneko epea emango dio lehen adierazitakoak betetzeko.

Adjudikazioa bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 161.3 artikuluan aurreikusten denez, epe hori hamabost lanegunez luzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 152.3 artikuluak zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurriz gainekoak dituzten eskaintzak antzematen diren kasuetan.

Eskatutako dokumentazioa betetakoan, adjudikazio formala egingo da. Horrela, salerosketa eskritura publikoan formalizatuko da bi hilabeteko epean, adjudikazioa jakinarazten den datatik kontatzen hasita. Horrenbestez, adjudikazio-hartzailea bertaratu egin beharko da bere momentuan zehaztuko den tokian, egunean eta orduan. Salerosketa hau beti egongo da baldintza-pleguen eta adjudikazio-hartzaileak aurkeztutako eskaintzaren baldintzen pean.

Adjudikazio-hartzaileari egotz dakiokeen edozein arrazoi tarteko dela eskualdatzeko eskritura publikoa sinatu ez bada, Udalak adjudikazioa bertan behera lagatzea erabakiko du, aurretik interesatuari entzunaldi-epea emanez, eta ezarritako fidantza galduko du.

Eskualdatze-eskritura ez bada sinatzen, Udalak erosteko eskaintza egingo die lizitazio-oinarria baino prezio altuagoa eskaini duten lizitatzaileei, eskaintzarik onenaren arabera hurrenkera zehaztuta, berak eskainitako prezioan erosteko; eta lizitatzaileak interesa badu, 10 laneguneko epean 1.000 euroko fidantza jarri eta puntu honetan gorago jasotako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Ondoren udalak adjudikazioa egingo dio eta bi hilabeteko epean eskritura sinatuko da.

**12. <u>Zuzeneko inorenganatzea</u>**

Lizitazioa hutsik geratuko balitz, urtebeteko gehienezko epean zuzenean inorenganatu ahal izango du Udalak, baldintza plegu hauetan zehaztutakoa betez.

**13. <u>Ordainketa</u>**

Ordainketa osorik egingo da, eskritura publikoa ematen den unean.

**14. <u>Gastuak eta zergak</u>**

Eskualdatzearen ondorioz sortutako gastu eta zerga guztiak adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira.

**<u>15. Etxebizitza eta trastetegia aztertzea</u>**

Lizitazio honen xede diren etxebizitza eta atxikitako trastetegia ikuskatu nahi duten interesatuek Bergarako Udaleko Idazkaritzarekin harremanetan jarri beharko dira 943 77 91 00 telefonora deituta.

**15. <u>Erreklamazioak ebatzi eta kontratua interpretatzea</u>**

Adjudikazioa erabakitzen duen organoari dagokio Baldintza Plegu hauen kontra, hala balitz, aurkeztutako erreklamazioak erabakitzea eta baita kontratua interpretatu eta hori betetzean sortutako zalantzak argitzea ere.

## 16. Erregimen juridikoa

Kontratu honen erregimen juridikoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratuaren 4.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratu pribatuen erregimen juridikoari lotuko zaio, aipatutako lege-multzo horren 20 artikuluak xedatutakoa betez.

# I. Eranskina

LKS-k egindako balorazioan eraikinari buruz azaltzen den informazioa (informazio gisa soilik)

**PLIEGO DE CONDICIONES ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE REGIRÁN EL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA VENTA DE UNA VIVIENDA Y TRASTERO**

**1. Objeto del contrato**

Constituye objeto del presente contrato la venta de la vivienda de Telesforo Aranzadi 3 - 2º F y el trastero nº 3 adscrito a la misma. Este bien está libre de cargas (en caso de querer consultar la información registral, ésta se encuentra a disposición de las personas interesadas en Secretaría).

**2. Procedimiento de contratación**

La contratación se realizará mediante procedimiento abierto.

**3. Tipo de licitación**

El tipo mínimo de licitación será de 143.000 euros.

La licitación se hará al alza, no admitiéndose posturas que no superen la citada cantidad.

En el tipo de licitación no se incluye impuesto alguno que pueda corresponder a la transmisión ni los gastos notariales ni de registro, que en todo caso serán a cuenta y cargo de la adjudicataria.

**4. Garantías**

Para tomar parte en la presente licitación, las personas o entidades licitadoras deberán constituir una garantía provisional por importe de 1.000 euros.

La devolución de la fianza provisional a las no adjudicatarias se realizará en el plazo de 10 días contados desde la adjudicación.

A la adjudicataria de la finca se le devolverá la fianza establecida en un plazo máximo de 7 días a partir de la entrega de la primera copia de las escrituras debidamente inscritas.

En caso de no firmarse la escritura en el plazo establecido o demorarse en más de un mes la inscripción en el Registro de la Propiedad por causas imputables a la adjudicataria, ello implicará la pérdida de la fianza depositada.

La fianza podrá constituirse en metálico o en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 96 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

## 5. <u>Forma de adjudicación</u>

Para realizar la adjudicación, se tendrá en cuenta la oferta económica efectuada por las licitadoras, de modo que resultará adjudicataria quien oferte el precio más alto.

Los posibles empates se resolverán mediante sorteo, que tendrá lugar en acto público en el ayuntamiento de Bergara, al cual serán convocadas con antelación las personas interesadas.

## 6. <u>Capacidad para contratar</u>

Podrán tomar parte en este procedimiento aquellas personas físicas o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 60 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representados por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello.

## 7. <u>Proposiciones, documentación y plazo de presentación</u>

La documentación se presentará en sobre general cerrado, figurando en su exterior el nombre de la licitadora y la inscripción "Proposición para la adquisición de vivienda y trastero".

El sobre general, a su vez, contendrá otros dos sobres, también perfectamente cerrados con los siguientes títulos:

- Sobre 1: Capacidad y Solvencia para Contratar
- Sobre 2: Documentación económica.

En cada sobre se incluirá la documentación que a continuación se detalla:

**- Sobre 1:**

a) DNI de la persona que presenta la proposición, en nombre propio o como apoderada, o copia autenticada del mismo.

   Si la licitadora es una persona jurídica: escritura de constitución o modificación (debidamente inscrita en el Registro Mercantil) y copia autentificada de la misma. Cuando se trate de empresarios/as no españoles/as de Estados miembros de la Comunidad Europea, deberán acreditar su inscripción en un registro profesional o comercial cuando este requisito sea exigido por la legislación del estado respectivo.

b) Cuando la licitadora no actúe en nombre propio o se trate de sociedad o persona jurídica, poder notarial para representar a la persona o entidad en cuyo nombre concurra. El poder notarial deberá estar debidamente inscrito en el Registro Mercantil, si así corresponde, o en documento público, en caso de representar a personas.

c) Documento acreditativo de haber constituido la fianza de 1.000 euros.

d) Declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 60 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

e) Correo electrónico y/o teléfono de contacto

**- Sobre 2:**

a**)** PROPOSICIÓN ECONÓMICA ajustada al siguiente modelo:

a) *D / Dña.__________________________________________________________ _,con domicilio en ______________________________________________,DNI nº _______________, teléfono_______________, en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de ____________________________________________________________, con domicilio en ____________________________________________, teléfono_______________, y DNI o CIF _______________ ),*

*La persona cuyos datos quedan consignados arriba, enterada del procedimiento abierto para la enajenación por el Ayuntamiento de Bergara de la vivienda de Telesforo Aranzadi 3 - 2ºF con el trastero nº 3 adscrito a la misma, efectúa la siguiente **DECLARACIÓN JURADA**:*

*c. Que conozco las características —físicas y jurídicas— de la vivienda y del trastero, así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.*

*d. El precio de adquisición de la finca que me comprometo a satisfacer asciende a la cantidad de ________________ €.*

*En Bergara, a ....... de ..................de..........*

*Firma*

Al presentar la proposición, se entenderá que la licitadora acepta incondicionalmente cuanto se establece en el presente pliego. Además implica el

conocimiento previo y completo por parte de quienes licitan de todas las características de la vivienda y trastero que se enajenan, tanto por lo que se refiere a sus propias condiciones físicas y jurídicas, como a las posibilidades de su ulterior aprovechamiento, sin que, consecuentemente, puedan las adjudicatarias alegar la existencia de error o de vicios ocultos que puedan afectar a la validez de la enajenación y a la responsabilidad del Ayuntamiento de Bergara, como parte vendedora, por ningún concepto.

## 8. Plazo de presentación de las proposiciones

El plazo para la presentación de las ofertas será de 30 días naturales desde la publicación del anuncio de licitación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Las proposiciones se presentarán en el Registro Municipal del Ayuntamiento de Bergara entre las 9 horas y las 13 horas de lunes a sábado.

Si el plazo de presentación de proposiciones finaliza en domingo o festivo, el plazo se considerará que finaliza el siguiente día hábil a las 13 horas.

Esta oferta se anunciará, asimismo, en el Perfil de Contratante del órgano de contratación, cuyo acceso se podrá realizar en el siguiente portal informático o sitio web: www.bergara.net.

Conforme al artículo 80 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, las proposiciones podrán ser presentadas así mismo por correo. En tal caso, la licitadora deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta mediante fax (en el número 943 77 91 63) antes de la finalización del plazo señalado en el párrafo primero de esta cláusula. Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la proposición si es recibida con posterioridad a la fecha de terminación del plazo de presentación de proposiciones. Transcurridos, no obstante, diez días naturales a partir de la fecha indicada sin haberse recibido la proposición, ésta no será admitida en ningún caso.

Las proposiciones son secretas y su presentación implica por parte de la licitadora la aceptación íntegra de todo lo establecido en el presente pliego.

Cada licitadora podrá presentar una única proposición; en caso contrario serán rechazadas todas ellas.

## 9. Mesa de Contratación

La mesa de contratación estará compuesta por los siguientes miembros:

PRESIDENCIA:

Alcaldesa-Presidente del Ayuntamiento de Bergara o persona en quien delegue.

VOCALES:

Primera Teniente de Alcaldía.

Interventor o persona en quien delegue.

Secretaria Municipal, o persona en quien delegue.

SECRETARÍA:

Secretaria de la Corporación Municipal, o persona en quien delegue.

Podrá asistir a la reunión de la Mesa todo el personal responsable técnico municipal que la Mesa solicite para realizar funciones de asesoramiento. La Mesa podrá a su vez solicitar cuantos informes técnicos crea convenientes.

## 10. Calificación de documentos y apertura de proposiciones.

Antes de proceder a la apertura de las proposiciones, la Mesa procederá a la clasificación de la documentación recibida en el sobre “1” y, en caso de que se advirtieran defectos materiales en la misma, la Mesa podrá conceder un plazo de tres días hábiles para la subsanación de los mismos por parte de la licitadora.

La Mesa de Contratación procederá a la apertura de los sobres "2" (Plaza San Martín de Agirre, 1) a los cuatro días desde la finalización del plazo de presentación de las proposiciones, a las 12:30 del mediodía.

En dicho acto público se procederá a abrir exclusivamente los sobres "2" de las proposiciones admitidas.

El mantenimiento de esta convocatoria inicial o las modificaciones que puedan darse se publicarán en el Perfil de Contratante (www.bergara.net), aunque podrá utilizarse cualquier otro medio que se considere adecuado para su comunicación.

## 11. Adjudicación

A la vista de las ofertas realizadas y presentadas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 320.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Mesa de Contratación enviará al órgano de contratación las proposiciones presentadas, el acta y la propuesta de adjudicación.

El órgano de contratación tendrá potestad para optar por adjudicar el contrato a la proposición más beneficiosa o bien declarar desierto el procedimiento, siempre que lo justifique debidamente en todos los casos.

Desde Alcaldía se requerirá a la licitadora que haya presentado la mejor oferta, que realice las actuaciones que se detallan a continuación en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento:

1. Presentar certificados de Hacienda y de la Seguridad Social, acreditando que está al corriente en sus pagos.

2. Presentar documentación acreditativa de estar al corriente respecto a sus obligaciones para con este Ayuntamiento.

En caso de que no se adjudicase el contrato a la licitadora que hubiera presentado la oferta mas ventajosa por no haber cumplido ésta las condiciones establecidas, la Administración, antes de realizar una nueva convocatoria, podrá enviar un requerimiento a la licitadora siguiente, de acuerdo con el orden en que se hayan clasificado las ofertas, para que en el plazo de 5 días hábiles realice las actuaciones anteriormente indicadas.

La adjudicación se realizará en un plazo máximo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la apertura de las proposiciones. Este plazo se ampliará, al amparo de lo previsto en el artículo 161.3 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, en quince días hábiles cuando sea necesario seguir los trámites establecidos en el artículo 152.3 de dicho Texto Refundido, en caso de apreciar que una o varias proposiciones puedan ser consideradas desproporcionadas o anormales.

Una vez cumplimentada la documentación solicitada, se procederá a la adjudicación formal. Así, la compraventa se formalizará en escritura pública en el plazo de 2 meses contados desde la fecha de notificación de la adjudicación. A tal efecto, la adjudicataria deberá concurrir en el lugar, día y hora que oportunamente se fije. Esta compraventa estará siempre condicionada por los pliegos de condiciones y la oferta presentada por la adjudicataria.

Si por cualquier circunstancia imputable a la adjudicataria no se procediese a la formalización de la escritura pública de transmisión, el Ayuntamiento acordará la rescisión de la adjudicación, previa audiencia de la interesada, que perderá la fianza constituida.

En caso de no firmarse la escritura de transmisión, el Ayuntamiento ofrecerá su compra a las licitadoras que hayan ofertado un precio superior a la base de licitación, en el orden establecido conforme a la mejor oferta, para que realicen la compra al precio ofertado por ellas, de modo que, en caso de estar la licitadora interesada, en un plazo de diez días hábiles deberá depositar la fianza de 1.000 euros y presentar los documentos señalados más arriba en este mismo punto. A continuación, el ayuntamiento efectuará la adjudicación a su favor y se firmará la escritura en un plazo de dos meses.

## 12. Enajenación directa

Si la licitación quedara desierta, el Ayuntamiento podrá enajenarla directamente dentro del plazo máximo de un año, con arreglo al presente pliego de condiciones.

## 13. Pago

El pago se efectuará de una sola vez en el momento de otorgamiento de la escritura pública.

## 14. Gastos e impuestos

Serán de cuenta de la adjudicataria todos los gastos e impuestos que se deriven de la transmisión.

## 15. Visita de la vivienda y trastero

Las personas interesadas en inspeccionar la vivienda y trastero adscrito que son objeto de esta licitación, deberán ponerse en contacto con Secretaría del Ayuntamiento de Bergara, llamando al teléfono 943 77 91 00.

## 15. Resolución de reclamaciones e interpretación del contrato

Corresponderá al órgano que resuelva la adjudicación la facultad de resolver las reclamaciones que, en su caso, se formulen contra los Pliegos de Condiciones, así como la facultad de interpretar el contrato y resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento.

## 16. Régimen jurídico

El régimen jurídico del presente contrato, de acuerdo con lo establecido en el artículo 4.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, se ajustará al régimen jurídico de los contratos privados en términos del artículo 20 del citado cuerpo legal.

Anexo I

Información sobre el edificio (a título meramente informativo) que figura en la valoración efectuada por LKS.